



Plastika

Proposamen didaktikoa



1. unitatea. Herensugeak arrastoan!

EDUKIAK

- Lerro zuzena eta kurbatua
- Lerro zuzenek eta kurbatuek transmititzen dituzten sentrazioak
- Marrazteko prozesua: zirriborrotik kolorera
- Esperimentazioa eta sormena, lerro zuzen eta kurbatuetatik abiatuta
- Hirudimentsiokotasuna, planotik abiatuta
- Testuen ilustrazioa
- Behatzeko jarraibideak: lerroa Paolo Uccelloren lanean
- Sormena: herensugea

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Irudietan lerro zuzena edo kurbatua nagusitzen den jabetzea.
Zenbait lerro motak transmititzen dituzten sentrazioak bereiztea.
Marrazketa prozesuaren oinarrizko urratsak ezagutzea.
Sormena garatzea.
Irudi lau bat hiru dimentsioko objektu bihurtzea.
Paolo Uccelloren lan batean lerroa aztertzea.
Norberaren ekoizpen baten Uccelloren lerroaren erabilera aplikatzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea bereizten dituen lerro zuzenekin marraztutako herensugea eta lerro kurbatuekin marraztutakoa.
b Ea irudi bera bi lerro motarekin osatzen duen.
c Ea irudiak osatzeko urratsei jarraitzen dien: zirriborroa marraztetik kolorez margotu arte.
d Ea hiri bat marrazten duen lerro zuzenekin eta beste bat lerro kurbatuekin.
e Ea bi herensugereren deskribapenak irudiztatzen dituen, lerro kurbatuak eta zuzenak erabiliz.
f Ea pieza lauak mozten, tolesten eta itsasten dituen, bolumena duen herensuge bat lortzeko.
g Ea zehaztasunez gainmarratzen dituen margolan baten zati bateko lerro zuzenak eta kurbatuak.
h Ea herensuge bat asmatzen eta marrazten duen, lerro zuzenak eta kurbatuak erabiliz.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: lerroa.

Ludikoa: herensugeak.

LEXIKOA

zurruntasuna, gelditasuna, adierazkortasuna, zirriborroa

BALIOAK ETA JARRERAK

Besteen lanarekiko errespetua. Esan ikasleei ikaskideen emaitzen arteko aldea bereizteko, eta ulertarazi esperientzia aberasgarria dela.

Ondo egindako lana balioestea. Ulertarazi ikasleei prestaketa prozesua beharrezko sormen lana dela, marrazkiak ongi amaitzeko.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	EI
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea inguruko testuetan loturak ezartzen dituen adierazpen idatziaren eta adierazpen bisualaren artean.	13	e
Matematikarako gaitasuna	Ea lerroa, puntua eta zenbakera ordenatua erabiltzen dituen jolas jarduerak sortzean.	7	b
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea ezagutzen dituen eguneroko material batzuen ezaugarriak.	10	c
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea oinarrizko bi lerro mota identifikatzen eta bereizten dituen inguruko irudietan.	6	a
	Ea tolestaketa erabiltzen duen etxe abereen irudiei bolumena emateko.	11	f
	Ea identifikatzen dituen inguruko artelanetan lerro zuzenak eta kurbatuak.	14	g
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea planifikatzen duen apaingarri bat egitea prozesu ezagun baten arabera.	8	c
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea plastikako jarduerak bakarka eta sormena landuz egiten dituen.	9	d
	Ea inguruko animaliak hautatzen dituen alegiazko animalia bat asmatzeko.	15	h

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Jadanik ezagunak diren bi lerro landuko dira: lerro zuzena eta kurbatua. Baina helburua da ikaslea bi lerro kontzeptu konplexuagorekin ohitzen joatea: lerro organikoa eta lerro geometrikoa. Dena den, ez dute terminologia hori erabiliko. Beti bi lerro kategoria erabiltzea baliagarria izango da: zuzenak eta kurbatuak. Jarritako adibideen arteko aldeak nabarmentzea komeni da, ikasleak bakoitzaren adierazkortasunaren arteko aldeez jabetu daitezen.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Marratzu mahai bat erregela erabiliz, eta ondoren, olatuak itsasoan esku hutsez. Alderatu bi emaitzak, erabilitako lerroak kontuan hartuta.

► Zabaltzeko

Marratzu bi labirinto: lehena, karratu batetik abiatuta, lerro zuzenekin; bestea, zirkunferentzia batetik abiatuta, lerro kurbatuekin.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Lerro kurbatua eta lerro zuzena erabiltzeak aukera eman dezake Matematika arloarekiko erlazioa sortzeko.

Ingurunearen Ezaguera arloarekin ere lotuta dago, izotzaren eta hodeien ezaugarriak adierazten baitira.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Lerroa Paolo Uccelloren lanean

Baliabide artistikoak atalean, Paolo Uccelloren margolan batean lerro kurbatua eta lerro zuzena nola erabiltzen diren aztertuko da, batez ere herensugearen irudian.

Bestalde, behatzeko jarraibideak proposatzen dira, artelana zein arte diziplinatakoa den identifikatzeko eta esanahia interpretatzen laguntzeko.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Esan ikasleei gurasoek erakuts diezazkieketela lerro zuzenak edo kurbatuak nagusi dituzten etxeko zenbait irudi.

2. unitatea. Historia handiko testurak...

EDUKIAK

- Material arkitektonikoen testurak
- Testura naturalen imitazioa
- Uki daitezkeen testurak: collagea
- Buztinezko taula batean inprimatzea
- Testura zimurtsuak eta estanpazioa
- Testurak eta esgrafiatua
- Behatzeko jarraibideak: mosaikoaren teknika
- Sormena: animalia baten mosaikoa

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Material arkitektonikoen testurak bereiztea.
Hainbat testura natural erlazionatzea eta irudikatzea, material eta teknika egokiak erabiliz.
Collage teknika erabiltzea ukipen testurak adierazteko.
Irudikatze aukera esploratzea hainbat euskarritan: buztinean inprimatzea.
Testura zimurtsuak irudikatze estanpazioa erabiltzea.
Argizari bigunaren aukerak ezagutzea, esgrafiatuaren bidez testurak sortzeko.
Mosaikoaren teknika identifikatzea eta aztertzea.
Norberaren lan batean mosaikoen testura imitatzea.

Ebaluazio irizpideak

a	Ea bereizten dituen marmolaren, zuraren, granitoaren eta kristalaren testura marraztuak.
b	Ea identifikatzen eta marrazten dituen marmola, zura eta ilea, adierazitako material eta teknikekin.
c	Ea oihala eta harea itsasten dituen ukipen testurak adierazteko.
d	Ea egiten dituen inprimaketak buztinean hainbat objektuekin, Mesopotamiako taula baten itxura izateko.
e	Ea estanpatzen dituen testura zimurtsuko hostoak.
f	Ea esgrafiatuaren teknika argizari bigunekin zuzen aplikatzen duen, horma bateko harlanduak irudikatze.
g	Ea aintzat hartzen duen erromatar mosaiko bateko teknika.
h	Ea osatzen duen bere izena paper zatitxoak mosaiko modura itsatsita.
i	Ea irudikatzen duen mosaikoen testura marrazki batean.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: testurak.

Ludikoa: Historia.

LEXIKOA

marmola, granittoa, bikingoa, mosaikoa, erromatarra

BALIOAK ETA JARRERAK

Gizadiaren garapen historikoa baloratzea. Esan ikasleei denon artean hitz egiteko eraikin zaharren eta gaur egungoen arteko oinarritzko aldeez: neurria, forma, materialak...

Materialen eta tekniken aukera plastikoak ezagutzeko jakin-mina. Esan ikasleei eskuz maneiatzeko eta esploratzeko hain ohikoak ez diren materialak (besteak beste, buztina), eta esperimentatzeko teknika berriak: inprimatu, esgrafiatu, etab.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	EI
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea bereizten dituen hainbat material arkitektoniko.	16	a
	Ea alderatzen eta hautatzen dituen antzeko ukipen testura duten materialak.	18	c
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea ezagutzen duen erabili beharreko teknikari buruzko informazioa iruditan adierazita dagoenean.	19	d
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea erabiltzen dituen hainbat ikusmen testura bere ingurunea irudikatzeke.	17	b
	Ea erabiltzen dituen inguruko objektuak estanzazioak egiteko.	20	e
	Ea egiten duen esgrafiatuari buruzko jarduera bat ikaskide batekin.	21	f
	Ea erabiltzen duen mosaikoaren teknika eguneroko objektuak egiteko.	22	g h
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea erabakitzen duen zer gai irudikatuko duen mosaikoaren teknika imitatuta.	23	i

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Unitate honetan, *testura* kontzeptua eta aurreko ikasturtean landutako tipologia nagusiak errepasatzea komeni da: leuna, zimurtsua, ukipenezkoa eta ikusmenezkoa.

Landu aurretik, bideo proiektagailuarekin hainbat testura mota proiektatzea ere komeni da. Gainera, testura hautemateko, eguneroko hainbat objektu eskuz maneiatu daitezke: zurezko koilarak, kristalezko edalontziak, harriak, etab.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Egin testuren katalogoa aldizkari ebakinekin, eta elkartu antzekotasunaren edo kategorien arabera: leunak, zimurtsuak, ukipenezkoak eta ikusmenezkoak.

► Zabaltzeko

Egin testuren beste katalogo bat *frottage* teknika erabiliz, eta elkartu aurreko jardueran erabilitako irizpidearen arabera.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Unitateak lotura zuzena du Ingurunearen Ezaguera arloarekin, interesgune ludikoaren, Historiaren eta hainbat materialen ezaugarrien azterketaren bidez: harria, buztina, zura...

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Mosaiko erromatarra

Baliabide artistikoak atalean mosaikoaren teknika landuko da, erromatarren garaiko baten adibidetik abiatuta.

Gainera, jarraibideak proposatzen dira hainbat alderdi ikusteko; besteak beste, puntua lerroari nola gailentzen zaion eta teselen forma.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Esan ikasleei gurasoekin etxeko hainbat objektu ikusteko, eta eskuz maneiatzeko materialak eta testurak aztertzeko: kristala, zurezko altzariak, zenbait ehun (kotoia, zeta edo satina, zaku oihala...), terrazoa, azulejuak, etab.

3. unitatea. Etxeari forma ematen

EDUKIAK

- Egitura geometrikoak
- Eskema geometrikoak konposizioan
- Forma, aurretik, albotik eta atzetik begiratuta
- Oinarrizko formen konbinazioa, konposizio eskema gisa
- Formak ausazko orbanetan
- Simetria
- Behatzeko jarraibideak: forma Matisseren lanean
- Sormena: norberaren logela, forma sinplifikatuekin

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Objektuetan oinarrizko egitura geometrikoak hautematea.
Konposizioko eskema geometrikoak identifikatzen hasia.
Norbera lekuz aldatuta objektu baten forma hautemateko modua nola aldatzen den ikustea.
Zenbait forma geometrikoren artean osatutako konposizio eskemak identifikatzea.
Formak osatzean simetria erabiltzea.
Matisseren lanean formaren sintesia aztertzea.
Matisseren formen sintesia norberaren ekoizpenetan erabiltzea.

Ebaluazio irizpideak

a	Ea identifikatzen eta gainmarratzen duen objektu triangeluarren, zirkularren eta laukizuzenen ingerada.
b	Ea konposizioko eskema triangeluarra edo laukizuzena hautematen duen bi artelanetan.
c	Ea triangeluan oinarritutako konposizio bat egiten duen.
d	Ea marrazten duen aulki baten aurrealdeko ikuspegia, alboko eta atzeko ikuspegiak oinarri hartuta.
e	Ea eguneroko objektuen irudia osatzen duen, zenbait forma geometriko konbinatuta.
f	Ea nabarmentzen dituen ausaz egindako orban simetrikoek iradokitzen dizkieten formak.
g	Ea eszena bat irudikatzen duen forma sinplifikatuak eta Matisseren antzeko teknika erabiliz.
h	Ea bere logela marrazten duen formak sinplifikatuta.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: forma.

Ludikoa: etxea.

LEXIKOA

aurretiko posizioa, albotiko posizioa, atzetiko posizioa

BALIOAK ETA JARRERAK

Sormena eta irudimena. Esan ikasleei zereginei aurre egiteko, bai eskolako bai norberarenei, irtenbide berriak bilatuta, begien bistakoekin etsi gabe.

Ingurunea zaintzea. Esan ikasleei eguneroko bizitzako objektuak balioesteko eta mantentzeko, batez ere etxean, baita formaren eta diseinuaren aldetik ere. Aipatu etxeko lanetan lagundu behar dutela.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	El
Matematikarako gaitasuna	Ea ezagutzen duen eguneroko objektuen forma geometrikoa.	24	a
	Ea eskema geometrikoak erabiltzen dituen inguruneke objektuak irudikatzeke.	27	e
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea zehazten duen inguruneke objektuen posizioa.	26	d
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea ezagutzen duen konposizio eskema inguruneke artelanetan.	25	b c
	Ea Matisseren teknika erabiltzen duen eguneroko eszenak irudikatzeke.	30	g
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea erabiltzen dituen, bere ekoizpenetan, behaketaren bidez aurretik landutako ezaugarri formalak.	31	h
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea irudimena erabiltzen duen orban batean formak hautemateko.	29	f

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Ikasleak unitatean zehar nolabaiteko abstrakziorako gaitasuna garatu beharko du. Jarduera askotan objektuen forma geometrikoetan sintetizatzea azpimarratzen den arren, forma zehaztugabeak ere landuko dira; azken horiek egitean sormena erabiliko da.

Komeni da gogoraraztea objektuen xehetasun txikiak ez direla hain garrantzitsuak. Gainera, ulertu behar dute formak sinplifikatzea beste zerbaiterako bide ere badela: beste lan batzuk prestatzeko egin beharreko zirriborroetarako.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Marratzu hiru aurpegi, kontuan hartuta ingerada, ahoa, begiak eta sudurra trianguluz, laukizuzenez eta obaloz osatuta izan behar dituztela.

► Zabaltzeko

Moztu koloretako paperak 5 mm-ko laukitan. Itsatsi, mosaiko bateko teselak bezala, ingerada makurreko objektuak osatzeko: loreak, fruitu aleak...

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Forma geometrikoen erabilerak (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak...) erlazio zuzena du Matematika arloarekin.

Ingurunearen Ezaguera arloarekiko lotura interesgune ludikotik datorkio: etxea.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Matisseren forma sinpletasuna

Baliabide artistikoak atalean, formen sintesiari helduko zaio, Matisseren bi artelanen bidez.

Gainera, jarraibideak proposatzen dira lan horietako koloreari behatzeko, baita erabilitako materialak eta teknika ondorioztatzeko ere.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Esan ikasleei irakurritako egunkari eta aldizkariak gordetzeko, etxean collage teknika praktika dezaten.

4. unitatea. Zer kolorez jantziko gara gaur?

EDUKIAK

- Konbinazio kromatikoak
- Harmonia kromatikoa
- Kontraste kromatikoa
- Harmoniaren eta kontrastearen konbinazioak
- Jantzien diseinua
- Behatzeko jarraibideak: kolorea Pablo Picassoren lanean
- Sormena: kolorearen erabilera adierazkorra

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Koloreen harmonia eta kontrastea zer diren sumatzea.
Harmonia kromatikoa zer den jabetzea.
Kontraste kromatikoa zer den jabetzea.
Sormena garatzea.
Pablo Picassoren bi lanetan kolorea nola erabili den aztertzea.
Picassoren koloreen erabilera norberaren lan batean aplikatzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea bereizten dituen antzeko koloreen konbinazioak eta oso kolore desberdinenak.
b Ea margotzen dituen pertsonaia baten jantziak, irudiaren atzealdearen tonuen antzekoekin.
c Ea margotzen dituen pertsonaia baten jantziak, irudiaren atzealdearen tonuak ez bezalakoekin.
d Ea harmoniaren eta kontrastearen konbinazio kromatikoak asmatzen eta egiten dituen jantzietan.
e Ea irudi ebakigarri batentzako jantziak diseinatzen dituen eta collage bat egiten duen.
f Ea bereizten dituen margolanetako kolore nagusiak, eta ea ohartzten den kolore bakoitzarekin zer adierazi nahi den.
g Ea jantziak margotzen dituen Picassoren gamak erabiliz, eta ea horien bidez adierazten duen nola sentitzen den.

INTERESGUNEAK

- Plastikoa: kolorea.
- Ludikoa: jantziak.

LEXIKOA

harmonia, kontrastea, nahasi, nabarmendu, arlekin

BALIOAK ETA JARRERAK

Autoestimua. Ikasleek beren irizpidea balioesten ikasiko dute, plastikako lanetan koloreari eta marrazkiari buruzko erabakiak hartu behar dituztenean.

Sormena. Sormena erabili beharko dute konbinazio kromatikoak egiteko, bai eta jantziak asmatzeko ere. Lan horietan beren irizpidea eta gustu pertsonalak adieraziko dituzte, gainera.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	El
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea jabetzen den zenbait animaliak kolorea erabiltzen dutela ingurunearekin nahasteko.	33	b
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea ingurune materialak helburu plastikoetarako berrerabiltzen dituen.	37	e
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea identifikatzen dituen konbinazio kromatikoak jantzietan.	32	a
	Ea sortzen dituen atzealde batekiko kontraste kromatikoak.	34	c
	Ea sumatzen duen lan batek zer adierazi nahi duen, eta ea hori bere sorkuntzetarako baliatzen duen.	38	f
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea harmonia eta kontrastea aplikatzen dituen jantzietan.	35	d
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: gaitasun emozionala	Ea gai den azaltzeko zer aldartetan dagoen, jantzien koloreen bidez.	39	g

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Adin horretan, umeez ez dituzte behar bezala bereizten koloreen ñabardura guztiak; tonu argiak, tarteko tonuak eta tonu ilunak soilik bereizten dituzte. Beraz, lehendabiziko egitekoetako bat izango da ikasleei ikusaraztea kolore bakoitzak hainbat tonu izan ditzakeela: hainbat berde argi, urdin ilun asko, hainbat laranja...

Aukera kromatiko zabala dagoela ohartzeaz gain, ikasleek hasi behar dute jabetzen koloreek errealitatea marrazteko eta norberaren gustuak adierazteko baino gehiagorako balio dutela: sententzioak adierazteko, zenbait objektu besteen gaitetik nabarmentzeko, edo besteekin nahasteko...

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Marratzu norberaren jantziren bat. Gero, marratzu bigarren aldiz, koloreak aldatuta; eta azaldu zer efektu eragiten duen.

► Zabaltzeko

Diseinatu uniforme bana, koloreekin, gustuko bi futbol edo saskibalo talderentzat.

➔ DISZIPLINARTEKOTASUNA

Kolorea erabiltzen da ingurune fisikoarekiko kontrasteak eta harmonia sortzeko; beraz, lotura zuzena du Ingurunearen Ezaguerarekin.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Kolorea Pablo Picassoren lanean

Baliabide artistikoak atalean, Picassoren bi margolanetan, kolorearen erabilera adierazkorra aztertuko da; margolan bat garai arrosari dagokio, eta bestea, garai urdinari.

Halaber, jarraibideak ematen dira margolanetako eszenak interpretatzeko eta margolan horiek norberari zer sententzio eragiten dioten adierazteko.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Esan ikasleei beren etxeko zenbait lekutan egon daitezkeen konbinazio kromatikoei erreparatzeko: gortinetan, hormetan, oheko arropan, etab. Gero, konbinazio horiek harmonia ala kontrastea sortzen duten adieraziko dute.

5. unitatea. Ikurren mundua

EDUKIAK

- Gailu elektronikoetan ikurrak identifikatzea
- Ikurren balioa, informatzeko
- Emozioa eta adierazkortasuna ikurren bidez: emotikonoak
- Ohartarazpen eta debeku seinaleak
- Inguruneko ikurren esanahia
- Behatzeko jarraibideak: forma eta kolorea Keith Haringen lanetan
- Sormena: lagun arteko eszena bat

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Ebaluazio irizpideak

Inguruneko objektuetan ikurrak identifikatzea.	a Ea lotzen dituen ikurrak dagozkien gailu elektronikoekin.
Ikurrek duten informatzeko ahalmenaz jabetzea.	b Ea eguraldi mapa bateko ikurrak marrazten dituen, esanahia kontuan hartuta.
Aurpegierak adierazten dituzten ikurrekin aldartea azaltzea.	c Ea emozioak azaltzen dituen, aurpegierak adierazten dituzten ikurrekin.
Kode artistikoak adierazpen bide diren aldetik balioestea.	d Ea seinaleak irudikatuz zenbait kontzeptu jakin komunikatzen dituen.
Ingurune hurbileko ikurrek eta seinaleek ematen duten informazioa interpretatzea.	e Ea osatzen duen eguneroko objektuetako ikurren eta haien esanahien katalogoa.
Sormena garatzea, ohartarazpen eta debeku seinaleak asmatuz.	f Ea ohartarazpen eta debeku seinaleak asmatzen eta marrazten dituen, emandako informazioa irudikatzeke.
Keith Haringen lanetan formen eta koloreen sinplifikazioa aztertzea.	g Ea marrazten dituen Haringen lanetako pertsonaiak beste egoera batzuetan.
Norberaren lanetan Haringek erabilitako baliabide grafikoak aplikatzea.	h Ea eguneroko egoera bat irudikatzen duen, Haringen forma bakunak eta koloreak baliatuz.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: irudia.

Ludikoa: ikurrak eta sinboloak.

HIZTEGIA

ikurra, itsaso zakarra, erreserbatua, ohartarazpena, bizia

BALIOAK ETA JARRERAK

Bizikidetzarako araukiko errespetua. Ikasleei ohartaraziko zaie oso garrantzitsua dela besteekiko harremanak antolatzen dituzten arauak betetzea.

Informazioa transmititzeko interesa. Piztu ikasleei interesa, gaur egun ideiak azaltzeko dauden hainbat modu ezagut ditzaten; bereziki, ideiak bisualki azaltzeko dauden moduak ezagutzeko.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	El
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea idatziz adierazten duen eguneroko objektuetan agertzen diren ikurren esanahia.	44	e
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea identifikatzen duen eguraldi mapetan agertzen diren ikurren esanahia.	41	b
	Ea bereizten dituen bere inguruneko ohartarazpen eta debeku seinaleak.	45	f
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea identifikatzen dituen gailu elektronikoetako ikurrik ohikoenak.	40	a
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea bereizten dituen gizabide arauen seinaleak.	43	d
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea jabetzen den forma sinpleko irudien adierazpen ahalmenaz.	46	g
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea norberaren lanetan aplikatzen dituen aurretik behatutako ezaugarri formalak.	47	h
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: gaitasun emozionala	Ea marrazki sinpleen bidez aldarte desberdinak adierazten dituen.	42	c

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Ohiko hainbat objektu eta lekutan (mugikorrean, ordenagailuan, autobusean...) ikurrak eta piktogramak aurki ditzakegu, eta ia intuitiboki ulertzen dugu haien esanahia. Batzuetan, pertsonen edo objektuen marrazkiak ageri ohi dira; beste batzuetan, berriz, irudi abstraktuagoak. Ikur horien irakurketa sistematizatu egin behar dugu, eta ikasleei haien esanahia azaldu; kode hori uler eta balia dezaten, gero eta ohikoagoa den ikus-mintzaira bidezko adierazpenak egiteko.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Marraztu adiskidetasuna adierazten duen seinale bat, eta jarri ikasgelan.

► Zabaltzeko

Egin hainbat piktograma eskolan jartzeko; adibidez, honako hauek adierazteko: liburutegia, emakumeen eta gizonezkoen komunak, informatikako gela, su-itxalgailua eta idazkaritza.

➔ DISZIPLINARTEKOTASUNA

Marrazkiak sinplifikatzeko forma geometrikoak erabiltzeak lotura zuzena du Matematika arloarekin.

Bestalde, ohiko objektuetako ikurrak aztertzen dira; beraz, badu lotura Ingurunearen Ezaguera arloarekin ere.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Formen sintesia eta kolorea Keith Haring lanean

Baliabide artistikoen atalean, Haringen lanetako forma bakunak eta kolore biziak aztertuko dira; ezaugarri horiek ikurrak eta seinaleak diseinatzean ere hartzen dira kontuan.

Horrez gain, zenbait jarraibide ematen dira, lana zer arte diziplinatakoa den identifikatzeko; besteak beste, formak eta koloreak aztertzeke, erabilitako materialak ikertzeke eta lanak zer sentazio eragiten duen ohartzeko.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Errepara diezaiotela ikasleek, familian, etxean dituzten ikur eta seinaleen esanahiari: gailu elektronikoetan, haien argibideetan, bilgarrietan....

6. unitatea. Landan barrena!

EDUKIAK

- Planoen bereizketa
- Sakontasuna: zerumugaren lerroa eta perspektiba koniko zentralaren hastapena
- Sakontasuna, kolore saturazioaren bidez
- Formen gainjartzea
- Hirudimentsiokotasuna eta planoak: banbalinak
- Behatzeko jarraibideak: sakontasuna Pieter Brueghel *Gaztea* artistaren lanetan
- Sormena: landa eszena, perspektibarekin

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Irudi batean lau sakontasun plano bereiztea.
Sakontasun espaziala irudikatzeko zerumugaren lerroa oso garrantzitsua dela jabetzea.
Perspektiba koniko zentralaren oinarriak ikasten hasia: lerroak eta ihespuntua.
Kolorea erabiltzea sakontasun sententzia sortzeko.
Formak gainjartzeko saiakerak egitea, <i>aurrean</i> eta <i>atzean</i> kontzeptuak finkatzeko.
Hiru dimentsioko lanetan sakontasun plano desberdinekin saiakerak egitea.
Pieter Brueghel <i>Gaztea</i> artistaren lanetan sakontasun espaziala aztertzea.
Brueghelen teknikak aplikatzea norberaren lanetan, sakontasun sententzia sortzeko.

Ebaluazio irizpideak

a Ea identifikatzen dituen zenbait planotan kokatutako objektuak.
b Ea paisaia berbera marrazten duen, zerumugaren lerroaren altuera aldatuz.
c Ea perspektibadun paisaia bat irudikatzen duen, elementuen tamaina progresiboki txikituz joanez.
d Ea hurbileko planoetan kolore saturazioa areagotzen duen.
e Ea formen ingeradak gainmarratuz eta koloreztatuz zehazten duen zein forma dauden beste batzuen aurrean.
f Ea banbalinak erabiltzen dituen agertoki bateko elementuak plano desberdinetan kokatzeko.
g Ea identifikatzen dituen margolan batean sakontasuna sortzeko teknikak.
h Ea Brueghelen lanetan bezala marrazten dituen eszena bateko elementuak, sakontasuna lortzeko.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: espazioa.

Ludikoa: landa.

HIZTEGIA

zerumugaren lerroa, eszena, ohikoa, urruntasuna

BALIOAK ETA JARRERAK

Ingurumenarekiko errespetua. Ikasleek jabetu behar dute landa ingurunea zaindu eta balioetsi egin behar dela, balio estetikoak haratago.

Jakin-mina. Animatu ikasleak sakontasun espaziala irudikatzeko zenbait modu probatzera, bai planoan bai hiru dimentsioko lanetan.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	Ei
Matematikarako gaitasuna	Ea objektuak zenbakiz ordenatzen dituen, kokapenaren arabera.	48	a
	Ea perspektiba aplikatzen duen, intuitiboki, ingurune espazioak irudikatzean.	50	c
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea ohartzen den zerumugaren altuera aldatu egiten dela ikuslearen ikuspuntuaren arabera.	49	b
	Ea atmosferaren eragina eta urruntasuna lotzen dituen koloreek intentsitatea galtzearekin.	51	d
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea hondakin materialak erabiltzen dituen jostailuak egiteko.	53	f
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea irudi baten zatiak manipulatzeko dituen, haien ordena aldatzeko.	52	e
	Ea identifikatzen dituen artelan batean sakontasun sententzia lortzeko erabilitako baliabide plastikoak.	54	g
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea aplikatzen dituen, irudi berean, aurretik banan-banan landutako hainbat baliabide.	55	h

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Bai sakontasuna eta bai espazioa planotan banatzea aurreko ikasturteetan landu dira intuitiboki, eta nahiz eta irizpide horrekin jarraitu, gero eta agerikoagoak dira. Perfekzioa lortzen ez dutenean, huts egin dutela pentsa dezakete ikasleek. Horregatik, pixkanaka hasi beharko da, eta saiatu behar da adierazten ez dela erlazio espazialak adierazteko modu zuzen bakarra.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Marratzu norberaren logela, hormak eta altzariak bata bestearen aurrean jarrita.

► Zabaltzeko

Kalkatu, paisaia baten argazkiaren gainean, plano desberdinetan dauden hainbat elementuren ingeradak, eta areagotu kolore saturazioa hurbilen dauden elementuei.

➔ DISZIPLINARTEKOTASUNA

Ingurune naturala eta erlazio espazialak irudikatzen dira unitate honetan; beraz, lotura zuzena du Ingurunearen Ezaguerarekin. Bestalde, Matematika arloko hainbat kontzeptu ere lantzen dira unitate honetan; adibidez, perspektiba.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Espazioa Brueghelen lanean

Baliabide artistikoak atalean, Pieter Brueghel *Gaztearen* lanean espazioa irudikatze modua aztertuko da: perspektibari, formen gainezarpenerari, eta kolorearen erabilerari erreparatuko zaio.

Horrez gain, zenbait jarraibide ematen dira, lana zer arte diziplinatarikoa den identifikatzeko.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Esan ikasleei gurasoekin txango bat egin dezaketela, zuhaitzen eta bideen perspektibari behatzeko.

7. unitatea. Espazioa marrazten

EDUKIAK

- Egitura geometrikoak: zilindroa, konoa, esfera, kubo
- Degradatzea: esferak, zilindroak eta konoak
- Argitutako guneak eta itzalezatutako guneak
- Bolumenen modelatua: jostailuzko robota
- Argiaren fokua argazkian: aurretikoa, albotikoa eta goitikakoa.
- Behatzeko jarraibideak: bolumena argazkian
- Sormena: espazio ontzia

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Bolumena duten irudien egitura geometrikoa hautematea.
Esfera batean argitutako eta itzalezatutako guneak identifikatzea, argiztapenaren arabera.
Bolumena adierazteko degradatzea erabiltzea.
Argazkietan argiaren norabidea identifikatzea.
Buztinarekin bolumen geometrikoak sortzea eta muntatze teknikak hobetzea.
Argazkiak aztertzen hastea: argiztapena eta formak.
Irudietan ikusitako ezaugarri formalak norberaren ekoizpenetan aplikatzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea identifikatzen dituen zilindro, esfera, kono eta kubo formako irudiak.
b Ea adierazten dituen argitutako, itzalezatutako eta tarteko guneak zirkuluak esfera bihurtzeko.
c Ea degradatzea aplikatzen duen esferetan, zilindroetan eta konoetan.
d Ea ateratzen dituen aurretiko, albotiko eta goitikako argia duten argazkiak.
e Ea gorputz geometrikoak modelatzen dituen eta muntatzen dituen, jostailuzko robot bat osatzeko.
f Ea konturatzen den argiaren fokua non dagoen eta ea aztertzen duen argazkiaren elementu nagusiaren forma.
g Ea marrazten duen zilindroz osatutako espazio ontzi bat.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: bolumena.

Ludikoa: espazio ontziak.

LEXIKOA

zilindroa, esfera, konoa, kubo, degradatzea, efektua

BALIOAK ETA JARRERAK

Irudimena. Galdetu ikasleei ea beste planeta batzuetan bizia egotea posible den, eta ea nolakoa izan daitekeen bizi hori.

Ahalegina. Eskatu ikasleei ahalik eta zehaztasun eta pazientzia handienarekin jokatzeko, bai jarduera plastikoen teknikoetan, bai bolumena emateko degradatzea aplikatzean, bai pieza txikiak modelatzean.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	El
Matematikarako gaitasuna	Ea inguruko gauzetan zenbait gorputz geometriko bereizten dituen.	56	a
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea inguruko gauzetan argitutako eta itzaleztatutako guneak identifikatzen dituen.	57	b
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea argazki kamera erabiltzen duen inguruko pertsonen argazkiak ateratzeko.	60	d
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea inguruko gauzak marraztean degradatzea erabiltzen duen.	58	c
	Ea buztina erabiltzen duen, forma antropomorfitxoak modelatzeko.	61	e
	Ea norberaren argazki batean argiaren norabidea identifikatzen duen.	62	f
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea landutako teknika identifikatzen duen inguruko irudietan.	59	c
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea irudimena erabiltzen duen, zilindroak erabiliz espazio ontzi bat asmatzeko.	63	g

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Espazioa bi dimentsiotan adieraztetik hirudimentsiokotasunera pasatzea da ikasturte honetako zailtasunik handienetako bat. Horregatik, ondo ezagutzen ditugun gorputz geometrikoekin hasiko gara.

Komeni da arkatzenaren presioa praktikatzea, degradatzea progresiboa izan dadin.

Ikasleek argazkiak ateratzea izango da beste zailtasun bat. Irakasleak gainbegiratu egin beharko du ea ikasleek kamera ondo erabiltzen eta zaintzen duten.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Jarri zirkulu formako tapak paperaren gainean, marraztu tapen formak eta aplikatu zirkunferentzietan degradatzea.

► Zabaltzeko

Egin esferak mache paperarekin, puztutako puxika baten oinarria erabiliz.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Unitate honetan zenbait gorputz geometriko lantzen dira; hortaz, lotura argia dago Matematika arloarekin.

Hainbat planeta irudikatzen direnez, Ingurunearen Ezaguera arloarekin ere lotura zuzena sortzen da.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Argiztapena argazkigintzan

Baliabide artistikoak atalean, objektu baten argazkitik abiatuta, argiari eta bolumenari ekingo diote: haren itzalari behatu eta argia nondik datorren ondorioztatuzko dute.

Gainera, jarraibideak proposatzen dira, osakerari, kolore nagusiei eta testura motei behatzeko, eta irudia interpretatzeko galderak ere egiten dira.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Esan ikasleei etxean esfera, zilindro eta kono formako objektuei behatzeko, argiak eta itzalak haietan nola jokatu duten aztertzeko.

8. unitatea. Komikien ordua

EDUKIAK

- Bineten sekuentziazioa
- Bunbuiloen irakurketa ordena
- Kolorea eta denboraren joana
- Testuaren eta irudiaren arteko lotura: bunbuiloak eta onomatopeiak
- Komiki baten zirriborroa
- Komiki bat egitea
- Behatzeko jarraibideak: sekuentziazioa Wilhelm Buschen komiki batean
- Sormena: elkarrizketak eta onomatopeiak

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Komikietan sekuentzien ordenak duen garrantzia balioestea.
Komikietako bunbuiloak mendebaldean zer ordenatan irakurtzen diren jabetzea.
Istoriotxoetan denboraren joana adierazteko kolorea erabiltzea.
Bunbuiloen eta onomatopeien bidez testuaren eta irudiaren arteko harremanaz ohartzea.
Sortze prozesua aurrez pentsatutako asmoetara doitzea, zirriborroak eginez.
Wilhelm Buschen komiki baten sekuentziazioa aztertzea.
Aurrez landutako komikiaren baliabideak komiki «mutu» batean aplikatzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea bineten sekuentzia egokia zehazten duen.
b Ea ordena egokian irakurtzeko moduan kokatzen dituen bunbuiloak eta idazten dituen testuak.
c Ea aukeratzen dituen eguneko une bakoitzerako tonu egokiak.
d Ea bunbuiloak eta onomatopeiak irudiarekin erlazionatzen dituen eta marrazten dituen.
e Ea komiki bat egiteko zirriborroak prestatzen dituen.
f Ea aurrez egindako zirriborroetatik abiatuta komiki bat marrazten duen.
g Ea interpretatzen duen Wilhelm Buschen komiki batean zer gertatzen den.
h Ea Wilhelm Buschen komiki «mutu» batean elkarrizketak eta onomatopeiak gehitzen dituen.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: denbora.
Ludikoa: komikia.

LEXIKOA

bineta, istoriotxoa, bunbuiloa, onomatopeia

BALIOAK ETA JARRERAK

Jakin-mina. Saiatu ikasleek mundu garaikideak eskaintzen dituen adierazpen bideekiko interesa ager dezaten.

Irudimena. Ikasleek eginkizunei aurre egin beharko diete, bai eskolan bai eskolatik kanpo; irtenbide berriak bilatu beharko dituzte, eta arte adierazpenaren arloan arazo bat konpontzeko oso modu desberdinak egon daitezkeela ulertu.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	EI
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea komikiak irakurtzeko mendebaldeko ordena kontzienteki aplikatzen duen.	65	b
Matematikarako gaitasuna	Ea irudien sekuentzia batean ordena ezartzeko zenbakiak jartzen dituen.	64	a
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea erreparatzen dien egunean zehar gertatzen diren argi aldaketei.	66	c
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea forma bat nabarmentzearen eta haren esanahia indartzearen arteko erlazioaz jabetzen den.	67	d
	Ea komiki batean eguneroko egoera bat adierazten duen.	69	f
	Ea ohartzen den idatzizko euskarririk ez duten irudiek zer-nolako adierazpen ahalmena duten.	70	g
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea norberak asmatutako istoriotxo bat nola egin planifikatzen duen.	68	e
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea asmatzen duen istoriotxo mutu bateko pertsonaien arteko elkarrizketa bat.	71	h

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Komikian *sekuentziario* kontzeptua oinarrizkoa da. Narrazioa irudien eta testuen bidez egituratzen da. Hortaz, mintzaira berezia dauka.

Ikasleek ulertzen dute mintzaira hori; baina, istoriotxo bat egitean, arazoak dituzte hura aplikatzeko. Hori dela eta, mintzaira horren alderdi oinarrizkoenak lantzeko jarduera errazak proposatzen dira, ikasleek haren berezitasunen kontzientzia har dezaten.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Moztu egunkarietatik bi edo hiru pertsona agertzen diren argazkiak, asmatu elkarrizketak eta idatzi bunbuiloetan.

► Zabaltzeko

Gehitu aurreko jarduerari lerro zinetikoak eta onomatopeiak.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Unitate honek lotura zuzena dauka Euskara arloarekin, hizkuntza idatzia komikien zati baita: irakurmena sustatzeko bide interesgarria.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Sekuentziarioa Wilhelm Buschen lanean

Baliabide artistikoak atalean, Wilhelm Buschen komiki baten bidez, irudiak soilik erabiliz istorio bat kontatzeko moduari erreparatuko diogu.

Halaber, batetik, lana zer arte diziplinari dagokion jakiteko jarraibideak proposatzen dira, eta bestetik, ikusizko elementu nagusiak, erabili ahal izan diren materialak eta lanak pizten dituen sentipen pertsonalak aztertzeko jarraibideak.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Eskatu ikasleei gurasoak ume ziren garaiko komikiak irakurtzeko, eta gaur egungoekin dituzten aldeak aipatzeko.

9. unitatea. Ogibide artistikoak

EDUKIAK

- Ogibide artistikoak: arkitekto eta pintore
- Arkitektura, pintura, eskultura eta argazkigintza: materialak eta tresnak
- Sormena: koloretako orbanak
- Altzariak diseinatzea.
- Behatzeko jarraibideak: ingurunea Jørn Utzonen lanean
- Sormena: eraikin bitxia

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Helburuak

Zenbait ogibide artistikoren lan eremua identifikatzea.
Pintoreen, arkitektoen, eskultoreen eta argazkilarien zenbait lan tresna ezagutzea.
Orban kromatikoekin saiakuntzak egitea.
Ereduak erabiliz aulki bat eta mahai bat diseinatzea.
Jørn Utzonen arkitekturan formak eta ingurunearen garrantzia aztertzea.
Artelanetan ikusitako ezaugarri formalak norberaren ekoizpenetan aplikatzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea bereizten dituen irudietan arkitektoaren lantegia eta pintorearena.
b Ea bereizten dituen pintoreen, arkitektoen, eskultoreen eta argazkilarien lanabesak.
c Ea tenperazko orbanen bidez margolan bat osatzen duen.
d Ea aulki bat eta mahai bat asmatzen eta marrazten dituen egitura lineal baten laguntzaz.
e Ea hautematen duen Sidneyko Operako ingurunea eta ingurune horretako elementuekiko antzekotasuna.
f Ea asmatzen eta marrazten duen Sidneyko Operaren antzeko formak dituen eraikin bat.

INTERESGUNEAK

Plastikoa: arte diziplinak.

Ludikoa: ogibide artistikoak.

LEXIKOA

arkitektoa, pintorea, eskultorea, argazkilaria, zizela, objektiboa, tripodea, erakusketa, estalkia

BALIOAK ETA JARRERAK

Ogibide artistikoak balioestea. Galdetu ikasleei zer nolako formazioa eta zenbat denbora behar duten profesional horiek beren lanak eraginkortasunez garatzeko beharrezko trebetasunak lortzeko.

Artearen arloko profesionalek Kultura Ondareari egiten dioten ekarpena balioestea. Ikasleek hausnartu beharko dute zer modutan ematen dion ogibide bakoitzak herrialdeari kultura aberastasuna.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Adierazlea	Or.	El
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea idatziz adierazten dituen lan arkitektoniko bati buruzko sentipenak.	78	e
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea identifikatzen duen artearen arloko profesionalen lanen ingurunea.	72	a
	Ea ezagutzen dituen profesionalek erabiltzen dituzten materialak eta tresnak.	73	b
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea emandako eredu bati erreparatuz objektuak identifikatzen eta marrazten dituen.	74	b
	Ea orbanaren adierazpen ahalmena erabiltzen duen bere lan batean.	75	c
	Ea zehazten duen eraikin baten zenbait elementuren egokitasuna.	79	f
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea sormena erabiltzen duen egunero erabiltzen ditugun objektuak diseinatzeko.	77	d

➔ METODOLOGIA ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK

Ogibide artistikoen gaia ezezaguna eta urruna gerta dakieke ikasleetako askori. Pentsa dezaketena baino arruntagoa gerta daitekeela jabetu daitezen, komenigarria izango da ezagunen artean ogibide mota horiek dituen jendea aurkitzea.

Halaber, komeni da zuzenean ikusi dituzten ekoizpenei buruz gogoeta egitea: herriko eraikin esanguratsuak, plazetako estatuak, etxeko altzariak, norberaren logela apaintzen duten argazkiak edo margolanak, etab.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

Gogoratu eta idatzi berriro pintoreek, diseinatzaileek, arkitektoek eta eskultoreek erabiltzen dituzten tresnak.

► Zabaltzeko

Ondorioztatu eta idatzi buztinlari batek zer-nolako objektuak egiten dituen, eta zertarako balio duten haietako batzuek.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Zeregin artistikoetan aritzen diren profesionalen mundua, sortzen dituzten objektuak eta egiten dituzten jarduerak dira unitate osoaren ardatza; hortaz, lotura zuzena du Ingurunearen Ezaguera arloarekin.

➔ BEHATZEKO JARRAIBIDEAK

Jørn Utzonen lanean ingurunearen garrantzia

Baliabide artistikoak atalean, eraikina paisaian bertakotzeko ingurunearen eta eraikinaren formen artean zer erlazio dagoen aztertzeari ekingo diote.

Lanaren arte diziplina identifikatzeko argibideak ere ematen dira, bai eta azterketa formala eta kromatikoa egiteko, interpretatzeko eta eragiten dituen sentipen pertsonalak zein diren jakiteko ere.

➔ GURASOEN ESKU-HARTZEA

Ikasleek familia giroan herriko museo edo erakusketa aretoak bisita ditzakete, artelanen aniztasuna ikusteko.